

Gaiarreko oholtzan egon zeneko ilunabarra

DIARIO DE NOTICIAS Iruña Antzoki guztiek izan ohi dute oilategi bat, erran nahi baita, azkeneko solairuaren itzulian sokan lotzen diren jartokien zerrenda. Eskenaren oinean, sotoa litzatekeen horretan, daude gero bertze eserleku batzuek, atzetik aurrera lerrotuak eta azkenik, tertziopelozko palkoak kisuzko maskorretan zintzilik. Gaiarrekoan ere guztia, noski.

Oilategia, dena den, du behatoki Mikel Laboak pasa den ortzegunean eskaini zuen kontzertuaren inguruko kronika honek, zinema kontuetan *pikatu* baten moduan ezagutzen den ikusmira; gainkaldeko aulki ilada honetan balego kamera, alegia, hemendik gero, hamabortzen bat metro beherago, Laboaren irudia harrapatzeko, ipotx. Irudikazazu planoak, irakurle, otoi.

Gainera, zinegintzaren teoriek zera diote, *pikatu* baten medio ahultasuna isladatzen dela hobekien. Nonbait, plano hauetan ikusleak boterea baitu objektuarengan, hau azpian dagoen heinean, (Laboa, dagokigun kasuan). Baina, eta kontzertuak aitzina egin ahala, kamera iraultzeko ahalegina irakutsi zuen Donostiarrak, *pikatu* kontrapitua egokituz bada. Eta zinegintzaren teoriek zera diote, *kontrapikatu* baten bitartez boterea isladatzen dela hobekien.

Jende meta kontzertuan


Astiro astiro betez joan zen antzokia: lehendabiziko eskenaren oineko aulki lerroak, gero gorantz, palko maskorak eta guzti, azkeneko oilategia ere mukuratuz. Zortzietan hastekoa zen entzunaldia eta hamarren bat minutu pasatxo ilundu zuten argizatzaileek aretoa. Betiko murmurioak honekin. Zenbaitzuk, halabeharrez, sarrean eskuratu zituzten karamelu txokolate patata ezkur eta gozoki hauskorrez zimeltzen zuten hau, krakarrak.

Dena beltz. Horretan, abeslariaren ahotsa entzun zen. Bera, aitzitik, oraindik oholeratu gabe zegoen. Telebista suediarrek *Gernika* abestiaren inguruko erreporaje bat agertu zuten aurreneko Gayarren, aitzin apertifa gisa. Laboaren ahotsa negarra, garraixia ematen duen abesti hori. Bere ahotsez melatutako irudiek, bitartean, Gernikako alemanen bonbardaketaren baitan gertaturikoak erakusten zituen. Emakumeak eta haurrak lasterka karriketant, eta hegazkinak zeruan zialdoka daudela, mozkor, lehergailuak puzkerka.

Eskena tokiak hiru mikrofono agertu ohi ditu Laboaren kontzertuetan: bi zutik luzean eta bertzea, lepoan makurtuta. Horrela zegoen ere asteazkenean. Erdian pausatutako gerturatu zen azkenean Mikel, alboan xerrak laban-katzen diren modura erdibitzen den egurrezko aulki bat zuela. Ezkerreko zangoa bertara goratu, honen izterrean kitarra kulunkatzearen, erdian dagoen argazkiaren gisara. Mikelen irudia jada argizatuta, lehen kantua abestu zuten, Sarrionandiaren *Argiak eta itzalak* olerki musikatua.

1958. urtean kantatu zuen estrainezko Mikel Laboak jendeaurrean Gaiarre antzokian, Iruñean medikuntza ikasketak burutzen zebilela. Elbarrien aldeko

AEKk Iruñerat ekarri zuen abeslari donostiarra joan den asteazkenean eta mila pertsona inguruk antzokia lepo bete zuen artista entzuteko gogoz



Gainontzeko musikiariak:

Mikel Laboaren ahotsa atonduz bertan egon ziren Iñaki Salvador (pianoa), bere anaia Eduardo (bajoa), Josetxo Salgero (saxoa), Luis Camino (percusioa), Joseba Tapia eta Iker Goenaga (trikitilariak), Joxean Artze (txalaparta), Carlos Itoiz (gitarra) eta abesti batetan, musika ahotsarekin lagunduz Izaskun Erallariaga egon zen.

Mikel Laboa Zuzenean: Osorik ez bada, Otsailaren 17an emaniko kontzertu honetan Laboak 1997. urtean Elkar diskoetxearekin zuzenean grabaturiko diskoaren abesti gehientsuenak eskaini zituen.

ESTRAINEKOZ Laboa 1958an oholeratu zuen jendeaurrean lehendabiziko aldiz. Iruñeako Gaiarre antzokian izan zen, zitudadean medikuntza ikasketak burutzen zebilela. Egundik 65 urte ditu eta bere musika arrazoi, belaunaldien arteko zubitzat hartzen da eman duen uztia.

kontzertu batetan izandu zen hau. Hortaz, erranahi berezia duela Karlos III. eneko antzoki horrek adierazia du artistak aunitzetan.

Egundik 65 urte ditu. Bidean makina bat kantu zahar eta berri pausatuta ditu, poeta garaikideen olerkiak musikatu, bertze batzuenak harilkatu, eta abesti esperimentalak sarestatu. Aitzitik, gero eta urriagoak dira, edadea kontuagatik, zuzenean eskaintzen dituen emanaldiak. Honexegatik, agian, lepo bete zuten Gaiarre, eta berriz beteko ere, jende heldu zein gazteak. Belaunaldien arteko zubia dela bere musika diote, eta horren-

bertzez, bertaratutakoetan aunitz ziren bibote-pizar itzalik gabekoak, eta neskatil odol borboilaz sorginduak.

Euskal olerkarietan Mikelek gustokoa du Atxaga eta bere poema bi hedatu zituen kontzertu honetan: *37 galdera mugaz bestalde dudan kontakio bakarrari batetik, eta bertzetik, Lizardi. Esaidan, zoriontsu al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?/ Kausitzen al duzue maitasunik sikira zuen maitatuen arteko ehundiko hogeitabost edo hogeiren baitan, / ala hemen bezala mutu al diraute telefonoak, bihotz mortuak bailiren gauez gau, / bihotz*

mortuak bailiren etxeko laberintzoaren azkeneko salan?, dio hauetan lehendabizikoak.

Bigarrenarekin, betikoa lez, tango dantzari bihurtu zitzaigun musikaria. Rimbaud Lizardiz galdezka zebilela, eskena erditik bazterrean zutik eta luze zegoen bertze mikrora gerturatu ostean, eskuan hartu, eta zangoak gerria baino gehiago astinduaz tango dantzararia zen Laboa, Lizardiri solasean, *muxika hezur batetan sarturik / o petit poete / pirotekniarik gabe lurperatu haugu baratzean, gogoratze*.

Olerkari europarretan Bertolt Bretchen *Gaberako Aterbea* eskaini zuen: *Mundua ez da era hortan aldatzen / Gizonen hartu emanak ez dira hobekitzen / zama aroa ez da hola laburtzen, zioten.*

Komunikazio inkomunikazioa

Ingelesa zirudiena hartu zuen gero hizkuntzatza Laboak. Zenbaitzutan alemánieraren kutsua zuen mintzairak, eta frantzesarena bertze batzuetan, agian, baiña horrela, bakarsolasari eutsi zion. Irriak entzulegoan; aldiz, hauxe komunikazioaren seinale. *The pen is in the table, nor nori norik, korrika, zioen hizkuntza nahasi honetan. Gaurkotasunez, Kurdistan bera ere aipatu zuen, Where is the Kurdistan?, Where is the Basque Country?*

Hirugarren mikrofono bat egon ohi dela bere kontzertuetan genion kronika honen erdibidean, aipatzeke dugun bazter batean, aurreko biak ez bezala, makurtuta izaten dueneko bat. Ondorioz, eserita, Joseba Sarrionandiaren *Não es tu, facultade de sentir* eskaini zuen hemen, asteazkeneko adibide honetan. Euskararako itzulian hauxe dio tarte batean: *Hiria, zure bihotzaren mende dagoen guztia, tikiu egiten da lakuan, denboraren lakuan.*

Erlojuan aurrera zihoan kontzertua, emeki. Eta horretan, Joseba Tapia eta Iker Goenaga trikitilariak agertu ziren oholtza gainera. Elgetari eskaini zioten abestia, soinu tikiaren gurasoa dena. Herriz herri jendea alaitzen ibili zen umezurtz hau, azkenean, bakarrik hiltzeko.

Aitzinako bihotz izan zen Atxagaren hirugarrena Laboaren ezpainetan: *Bihotz, jausitako Bihotz, / Ari zara intzirikal Kexu zara, negar zara, oi Bihotz.*

Sarrionandiari gagoikionez, *Lekeition Dena lanbrotuta ikustot olerkia ahoskatu zuen Izaskun Erallariagak, euskaldune izatea, beltzie izatie bezalakue baita.*

Argizatzaileek berriro hozpeldu zuten Gaiarre, kontzertuak bereak egin zituela iragartzeko. Ordea, entzulegoa ez zegoen etxeratze prest, tupustean, bertze abestiren bat erregutu aurretik. Horrela egin, eta berriz taularatzeko lana izan zuen Laboak. Ordurako, karamelu gozoki txokolate eta ezkurak urtuta zeuden zintzurretan, baina xuxurlatuz ere, honetan, Laboa lagundu zuten *Herria eta hizkuntza* eta *Gure bazterrak* kantatzen: *Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkidanean...*

Eta modu berdintsuan gorde zitzaigun artista, bi ordu beranduago, gutxi goiti behiti, irauli ondoren Gaiarre, pikatutik kontrakora, nonbait, zinegintzaren teoriek diotenari segika.